

2. ERRENAZIMENTUA ETA KLASIZISMOA: TESTUINGURU OROKORRA, MUNDUKO ALDAKETAK ETA GIZAKIARI BURUZKO IKUSPEGI BERRIA

Errenazimentua, XIV. mendean Italian hasitako mugimendu soziokulturala, Europa osoan barrena hedatu zen, eta XVI. mendean gailurra jo zuen. Errenazimentuak literatura eta artea eredu klasikoaren arabera berrizatu zituen —hortik Klasizismo hitza—; baina, horrez gainera, giza jardueraren alor guztien eraldatze sakona ekarri zuen: politikan, ekonomian, zientzian eta erlijioan. Adibide batzuk jartzearen, aipa ditzagun estatu berrien agerpena, burgesia sendotzea, inprenta asmatzea, aurkikuntza geografikoak...



Literaturari dagokionez, genero guztiek izan zuten aldaketa. Poesia lirikoak funtsezko aldaketak izan zituen gaian eta forma metrikoetan, sensibilitate artistiko berriak eragina. Prosan Erdi Aroan hasitako generoak aurkitzen ditugu (zalduneria-nobelak), inspirazio klasikoko beste batzuen alboan (artzain-nobela) eta bai berrikuntzakoak ere (nobela pikareskoa). Genero dramatikoan teatro modernoaren oinarriak ezartzen dira.

Humanismoa

Humanismoa, Errenazimentuko kultur mugimendu esanguratsua, hasiera batean Italian sortu zen ahalegin eruditoa izan zen, Erdi Aroan oso deformatuta zegoen kultura klasiko grekolatindarraren ezagutza zehatza berreskuratzeko. Berehalak, artea eta miretsitako antzinakoen pentsaera eta bizimodua **berpizteko** helburua zuen mugimendu zabala bihurtu zen.

Honen ondorio nagusia munduak eta gizakiak berriro balioa hartzea izan zen. Erdi Aroan Jaungoikoa unibertsoaren gunea zela pentsatzen zen (**teozentrismoa**) eta munduko existentzia betiko bizitzara heltzeko izapide bat besterik ez zela. Orain, Errenazimentuan, gizakia munduaren erdian kokatuta geratzeko da (**antropozentrismoa**) eta bizitza sakonki bizitzekoa dela uste izango da.

XV. mendeko humanista italiarrak, C. Salutati edo P. Bracciolini esaterako, XIV. mendeko autore handien eredu jarraituz (Dante, Petrarka eta Boccaccio) antzinako eskuizkribu latindarrak aurkitzen eta beren forma eta edukiak imitatzen ahalegindu ziren. XVI. mendean, konkistatu berria zen Konstantinoplatik ihes egiten zuten jakintsu greko asko heldu ondoren, kultura grekolatindarra bere osotasunean berregitea lortuko da.

Europako Humanismoak eman zituen figura garrantzitsu batzuk: Lorenzo Valla, Erasmo Rotterdam-ekoa, Thomas More, Juan Luis Vives... ; **Thomas More**-k gizarte perfektuaren deskribapena den *Utopia* (1516) ospetsua idatzi zuen.

Italia, Errenazimentuaren osotasuna

Italiako hiri-estatuetan espirtu errenazentistak literatur formak berritzen ditu XV. mendetik aurrera. Alde batetik, literatura garrantzitsua dago latinez. Bestetik, genero eta lan klasikoak italierara egokitzen joango dira:

- **Lirika:** Petrarkaren imitatzailerek bezala, **Angelo Poliziano**ren (1454-1494) poesiak mundu pagano, idealizatu eta mitologikoa agertzen du. **Lorenzo de Medicis** (1449-1492) ere nabarmentzen da.
- **Epika:** epopeia landua berreskuratzen da **Matteo Boiardo**-ren (1441-1494) *Orlando maitemindua* eta **Ludovico Ariostoren** (1474-1533) *Orlando sumindua* lanekin.
- **Nobela:** **Iacopo Sannazzaro**k (1456-1530) bere *Arcadia* lanarekin artzain nobelari hasiera ematen dio, maitasunezko gatatzak eta giro bukolikoa elkartzuz.
- **Dotrina prosa:** **Niccoló Machiavelli**-k (1469-1527) lehenengo politika tratatu modernoak idatzi zuen: *Printzea*. Funtsean, metodo politiko bat da, XVI. mendeko eta lehenagoko praktika politikoak aintzat harturik eraikitako teoria hotza eta gupidagabea. Gizakia berez gaiztoa dela eta beti hala izan dela du oinarri. *Printzea*-n, Maquiavelok erakutsi besterik ez du egiten politiko guztiek egiten zutena. *Printzea* Benito Mussolinik, Napoleonek eta beste hainbat gobernari totalitariok dotrina-liburu bezala erabili izan dute, herria zanpatuta edukitzeko eta botereari kosta ahala kosta

eusteko aholku ugari ematen baititu. Maquiaveloren dotrinaz geroztik, *makiabeliko* izenondoak honelako esangura hartu du: "maltzurkerian, azpilduran eta zitalkeria oinarritutako jokabidea". *Printzea*-ren beste muturrean **Thomas More**-ren *Utopia* kokatzen da; honek boterearen ikuspegi moralista ematen du. "*Utopia*" grekotik harturiko hitza da, "existitzen ez den lekua" esan nahi duena. Hortik dator, halaber, hain zabal dabilen beste izenondo hau: *utopikoa*: "*plan, proiektu edo asmo berez ona, baina gauzaezina*".

Beste literatura errenazentista batzuk

Kontinenteko gainerakoak ez ziren sor agertu Italiatik etorritako berrikuntzen aurrean. XV. mendean jada aurrea hartzen duten ezaugarriak ikus badaitezke ere, bakarrik XVI. mendean hitz egin daiteke Europako Errenazimentu bati buruz, oso bikaina izan zena herrialde erromanikoetan.

Frantzia hiru figura nagusi nabarmentzen dira:

- **François Rabelais** (1494-1553), mediku, intelektual eta humanista handia, *Gargantua eta Pantagruel* nobela komiko eta nahasiaren egilea da. Bertan, protagonistak diren bi erraldoien ibileren harian, garaiko gizartea satirizatzen da sormen linguistiko eta narratibo handiz.
- **Pierre de Ronsard** (1524-1585), inspirazio petrarkista duen olerkari emankorra. *Sonetoak Helenarentzat* lanean maitasun berantiarra islatu zuen.
- **Michel de Montaigne**-k (1533-1592) genero berri bat sortu zuen *Entseguak* lanarekin. Hauek ikuskera pertsonal batetik eginak dauden mota guztietako gaietarako buruzko gogoetak dira.

Portugalaren ere Petrarkaren jarraitzaileak diren poetak aurkitzen ditugu, **Francisco Sa de Miranda** (1481-1558) esate baterako; eta, batez ere, portugaldar olerkaririk nagusia den **Luis de Camoens** (1524-1580), *Os Lusíadas* lanaren egilea. Epopeia landu eta aberkoia da, Vasco de Gamaren espedizioei buruzko ia bederatzi mila bertsoz osatua.

Errenazimentu alemaniarra erlijio kutsuz betetzen da; izan ere, berritzaile handia den **Martin Lutero**k (1483-1546), egia esan oso humanista ez dena, alemanera literario eta jaso sortzen du bere ideiak zabaltzeko.

Antzerki errenazentista

Antzerki landu eta unibertsitarioaz gainera, Italiako antzerki errenazentistako gauzarik gailenena **Comedia del arte** da. Mozorro bat eramateagatik identifikagarriak diren pertsonaia finkoak (Arlekina, Polichinela, Colombina) protagonista dituzten maitasun eta intrigazko pieza txikiak dira. Europa osoan antzeztu zituzten aktore ibiltarien konpainiek eta antzerki profano eta profesionalaren garapenari bultzada handia eman zioten.



Arte errenazentista aparta



Garrantzia izanagatik ere, Errenazimentuko literatura makaldu egiten da arte ederrekin konparatuz.

Alberti edo Brunelleschi arkitektoek, Donatello eskultoreak, Boticelli edo Rafael margolariek, eta erabateko artistak ziren Leonardo da Vincik (margolaria eta ingeniaria) edo Miguel Angelek (margolaria, arkitektoa eta gainera olerkaria) artearen historiaren orrialderik bikainenak idatzi zituzten XV. eta XVI. mendeetan.

ERRENAZIMENTUA edo BERPIZKUNDEA

1. Errenazimentua: noiz eta non sortu zen? Zertan datza? Zer da klasizismoa?
2. Zertzuk aldaketa ekarri zituen Errenazimentuak politikan, ekonomian, zientzian... eta literaturan?
3. Humanismoa: ezaugarri garrantzitsuenak.
4. Idatzi zerbait autore hauei buruz:
 - François Rabelais
 - Michel de Montaigne
 - Luis de Camoens
5. Zer da **Comedia del arte**?
6. *Utopia* eta *Printzea* obrak: aipatu euren idazleak, deskriba itzazu idazlan biak eta egizu bien arteko konparazioa.

LITERATUR GURUTZEGRAMA 2

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										

GOITIK BEHERA

1. Homeroren lan handietako bat. Sei, zenbaki erromatarrez.
2. *eta* lokailuaren laburdura. Erdi Aroko gizon-izena. Hura, ingelesez (neutroa).
3. Antzinako Grezian, trobadore epiko. Itzulia.
4. Kontsonanteak. (Alderantziz) Jainko egiptoarra. Kontsonanteak.
5. Sarrera. Bokala. Bi.
6. Bokala. Peruko hiriburuaren kontsonanteak. Musika nota.
7. Kontsonanteak. Lehen letra. Interjekzioa.
8. Bigarren bokala. Bokala. Kontsonante dardarkaria. Lehen nota.
9. Bokala. (Alderantziz) Ordenadoreetako letra tipoa. Bostehun.
10. Idazle eta humanista italiarra.

EZKERRETIK ESKUMARA

1. Ulisesen jaioterria. (Ald.) Erromantizismoko idazle amerikarra.
2. Hamlet-eko pertsonaia, Ofeliaren neba. Bokala
3. Bat. Bostehun. Bigarren bokala. Whitman poeta erromantikoaren izena.
4. Garai. Erromantizismoa sortu zen herrialdearen bi lehen letrak. Ez eme.
5. Dauka. Bokala. Bibliako izena.
6. (Ald.) Alegietako ohiko animalia. Kontsonante errepikatuak.
7. Bat. Grezia klasikoko olerki lirikoak
8. *Bukolikak* deritzanaren idazle latindarra. Lehena.
9. Errenazimenduaren sorterria. Bostehun.

THOMAS MORE eta bere *Utopia*



Thomas More (Tomas Moro ere deitua): Ingeles humanista eta politikaria (Londres, 1477-Londres, 1535). Humanitate ikasketak egin zituen Oxford-eko unibertsitatean, eta Londresen zuzenbidekoak. Erasmo Rotterdamgoa eta Juan Luis Vives humanisten laguna izan zen. Politika kargu asko izan zituen: Parlamentuko kide izan zen (1504), jarauntsien kudeatzaile (1514), ondasunen diruzain (1521) eta Behe Ganbarako lehendakari (1523). 1529an erreinuko kantziler izendatu zuten, baina bertan behera utzi zuen kargua handik hiru urtera, ez baitzuen Enrike VIII.aren eta Katalina Aragoikoaren arteko banakuntza onartzen. Halaber, ez zuen erregea Ingalaterrako elizaren buruzagi nagusizat onartu (1534). Erregeari aurka egiteagatik Londresko Dorrean sartu zuten preso urtebetez; heriotza zigorra ezarri eta burua moztu zioten uztailaren 6an. Dohatsu egin zuten 1886an eta santu 1935ean. Thomas More-ren idazlan nagusia, *Utopia* (1516, 1993an Piarres Xarritonek euskaratua) da, latinez argitaratua. Lan horretan gizartearen satira egin zuen eta oso eragin handia izan zuen; bertan agertzen den gizarte idealean, erlijioa teismo hutsa da eta tolerantzia erabatekoa, eta egitura komunista duen estatuaren alde egiten du Morek.

UTOPIAREN pasarte batzuk



Utopiarren uharteak, bere erdialdean -hor baita zabalarik- berrehun mila urrats dauzka eta bere eremu gehienez ez da meharrago, nahiz piskanaka hertsitzen den bi buruetan; hauek biak makurtzen baitira bostehun mila urratseko uztaia moldatuz, berpiztera doan ilargiaren itxura emaiten diotela uharteari. Ilargi horren bi adarrak bereizten dituzten hamaika mila -guti gorabehera- urratsen artetik, sartzen dira itsasoko urak eta hedatzen golko zabal batean; alde orotarik inguratzen duten munoek haizeetarik babesten dute eremu guztia eta ekaitzak bakan harrotzen duen laku handi bat moldatzen. Lurralde horren altzo osoa hartzen duen portuan barna, harat-honat badabilta itsasuntziak herritarren zerbizutan. Bokalea beldurgarria da, urpearengatik batetik, harkaitzengatik bestetik. Haren erdi inguruan harkaitz handi bat nabari da, -ez beraz kaltegarri- bere gainean eraikia duela dorre bat bere zaindari multzoarekin. Beste harkaitzak aldiz gordeak dira eta engainakorrek, uhartearrek bakarrik dakizkitezko ubideak.

Horra zergatik ez den maiz arrotzik ikusten utopiar pilotu baten laguntzarik gabe badiako uretan sartzeraz menturatzen. Uhartiarrak berak ere beldur litezke, lehorretik ez baliote zeinu batzuek bidea erakusten. Eta aski liteke zeinu horien lekuz aldatzea etsaien unti-taldea - nahi bezain handia izanik ere- erraz hondoratzeko. Kanpoko aldetik ez da portu eskasik, baina lehorreratzeko gune egokiak orotan hain ongi zainduak dituzte, non zaintzale banaka batzuk aski baitira etsaien osteak urruntzeko.

(* * * *)

Utopiarrek aldiz hogeita lau ordu berdinetan zatitzen dute egun bakoitza, hari datzekion gauarekin. Sei ordu bakarrik ematen dizkiote lanari: hiru eguerdi aurretik, zeintzuen ondoren bazkaltzen baitute; bazkal ondoan, bi ordu dituzte loaldia egiteko; gero berriz hiru ordu lanerako eta azkenean afaria. Zortzietan etzaten dira. Loak zortzi ordu hartzen ditu. Lanak, loak eta jatorduak uzten duten bitartea bakoitzaren kontu dago; ez ordea alferkerian edo linburkerian xahutzeko, baizik laneko betebeharratarik kanpora, bakoitzak bere hautura, gogoko duen zerbait eginkizunetan ongi baliatzeko.

Lanarte horiek, buru-lanetan ematen dituzte herritar gehienek. Goizeko lehen orduetan eman ohi dira alabaina irakastaldi irekiak, egun oroz. Letrak ikasteko izendatuak izan diren ikasleak bakarrik dira behartuak horra joatera, baina bestalde, maila guztietako entzulesaldio izugarria, gizon eta emazte badoa hitzaldi horietara, bakoitzak hautatzen duela gogoak ematen diona.

(* * * *)

Afal ondoan, ordu bat hartzen dute libertitzeko; udan, baratzean; neguan, jangela handietan. Hor dira batzuk musikan ari eta besteak solasean elkarrekin. Dadoak eta beste horrelako joko zoro eta kaltegarriak ez dira aipatu ere egiten; baina bi joko badituzte, nolabait xake-jokoaren antzekoak: zenbaki-jokoa da bat eta zenbaki jakin batek besteak garaitzen du; bestea gerla-jokoa da; eta bizioen eta bertuteen arteko gerla da gaia.

Baina orain hutsik ez egiteko, zerbait behar dugu hurbilagotik ikusi: "Sei ordu lan baizik ez direnez gero, usteko duzue menturaz horrengatik sor daitekeela behar-beharrezko zer batzuen eskasia". Baina urrun dira horretarik: bizi-beharrak edo berdin biziaren gozoak eskatzen dituen guztien doia biltzeko astia nahikoa badute; ez bakarrik nahikoa; soberakina ere bai. Zuk ere ikusiko duzu, nik bezala gogoan hartzen baduzu, zer jende-andana dabilen alferkerian beste herrietan. Lehenik kasik emazte guziak, hots-kopuru osoaren erdia; edo emazteak lanean ari diren eskualdeetan, maizenik haien orde gizonak daude zurrungan. Emazu gainera apez eta fraideen saldoa, hain handia eta hain nagia! Eta oraino aberats guztiak, bereziki etxalde-jabeak; "jaunak" eta "handikiak" deitu ohi direnak. Sar kontuan hauen zerbitzariak ere, esan nahi da, zirtzil pildatuen basura; eta azkenik beren alferkeria gordetzeko, eritasun zerbaiten aitzakia asmatzen duten eskale sendo eta bizkorrak. Ohartuko zara orduan, uste zenuen baino biziki gutxiagoren lanak betetzen dituela guztiek behar ditugun baliagarri guztiak.

(* * * *)

Guk alabaina, halako balioa ematen diogu urreari, non arretaz gordetzen baitugu. Haiek aldiz, bere begiz ikusi ez dutenek sinets ez dezaketena egiten dute: buztinezko edo beirazko baxera polit baina arruntetan jaten eta edaten dutelarik, urrez eta zilarrez egiten dituzte txizontziak eta unti zikinkor guztiak. Gai berarekin moldatzen dituzte morroien kateak eta hauek atxikitzeko lokarri larriak. Alde orotarik lehiatzen dira desohore-marka ematera urreari eta zilarrari.

Harritzen dira utopiarrek zeren urrea, berez hain gauza ezdeusa delarik, munduko herrialde guztietan halako estimu handitan baita gaur egun: biziki estimu gutxiago du gizonak berak; honek eta honentzat eman diolarik bada urreari bere balioa.

(* * * *)

Ezkontidea hautatzerakoan, badute ordea utopiarrek ohitura bat, guri guztiz zoroa eta irrigarria iduritzen zaiguna eta haiek guztiz hertsiki begiratzen dutena: emaztegaia, ezkongabea ala alarguntsa, larru gorritan aurkezten dio andre zuhur eta ohoragarri batek bere senargaiari; eta berdin gizongaia, biluzirik gizon zuhur batek bere andregaiari.

Baina guk desegokia aurkitzen genuelarik ohitura hori eta irribarrez gaitzesten, haiek harrituak zeuden, beste herri guztien erokeria handia ikusiz: behor bat erosten delarik alabaina eta diru puska bat arriskatzeko, zer artarekin ez da, tratua egin aurretik ia biluzik delarik animalia, bere zela eta pilda guztietarik biluzten, arnesen azpian zauri gaizto zerbait

gorde dakion beldurrez? Ezkontidea hautatzean ordea -bizi guztiko zoriona ala zorigaitza hautu horri doakiolarik- hain ezaxolki dihardute non, gorputz guztia jantziz estalia delarik, ahurraren eremuarekin bakarrik -aurpegia baizik ez da ikusten- estimatzen dute emazte osoaren balioa, gero hura hartzen eta arriskatzen -ez arrisku tipia- zerbait akats ager baledi ondotik gaizki heltzea harekin.

(* * * * *)

Zinezko basakeria den bezala, -nahiz ez den abere-motarik gizonak bezain usu egiten duenik- gerra utopiarrek gaitzesten dute gain-gainetik eta beste herrialde gehienek ez bezala gerra irabazi ospea ez daukate hainbateko. Ondorioz eta nahiz herritar guztiek -gizon ala emazte- egun jakinetan militar-ariketak egin ohi dituzten jarraituki, behar-orduan trebe izateko, ez dira inola gerran sartzen itsuki. Gerra egiten dute bakarrik beren mugak zaintzeko edo adiskideen lurretarik etsaia urrunarazteko edo oraino tirano batek leherturik daukan edozein herriren alde -hartaz urrikalduz eta gizontasunez egiten dute orduan-tiranoaren atzaparretarik eta menpetik hura ateratzeko.

NICCOLÓ MACHIAVELLI eta bere *Printzea*



Autore modernoa dugu Machiavelli, nahiz eta orain dela laurehun urte baino gehiago (1469-1527) bizi izan. Bere prosa italierazko hoberenetakotzat jotzen da, baina gure artean ospetsua bada, bere ideiangatik da batipat. «Makiavelismo» eta «makiaveliko» hitzak mendebaldeko hizkuntza guztietan erabiltzen dira eta mendebaldeko kulturaren zati garrantzitsu bat da Machiavelli bera, bere *Printzea* obra handian ikusten denez.

Makiavelismoa bere zentzu propioan zer den jakiteko *Printzea* irakurri behar da. Hitz honek duen zentzu txar eta petralarekin geratzen bagara, Machiavelli azkar eta zuhurrari ez diogu bat ere justiziarik egiten. Eskuarki faltsukeria, ezkutukoa eta agerian aipatzen dena ez dela egiazko asmoa adierazteko erabiltzen da. Baina *Printzea*, italiar literaturaren perla hau irakurtzen baduzu, guztiz alderantzizkoa dela ikusiko duzu, hots, italiar literatura ez dela bat ere faltsua, zinikoa, egiazalea baizik.

Bai, Machiavelli egiazale, errealitatearen aztertzaile azkar eta zorrotz agertzen zaigu obra

honetan.

Printzea da, kapitalismo garaian, boterearen inguruan lehenbizikoz egindako deskribapen eta interpretazio modernoa. Halaber, kapitalismo modernoaren garapenean eta gaur egungo politikagintzan ere, eragin handia izan duen obra dela esan liteke. Bestalde, Machiavelli-ren ideietan ikusi da (bere obraren azalpenetan irakur daitekeen legez) politikagintzaren lehenbiziko teoria «zientifikoa» berea izan zela, zientifiko hitza errealitatearen nolabaiteko deskribapen bezala hartzen bada bederen; eta horixe egin zuen autoreak, alegia, deskribatu nola lortu eta mantentzen ziren herentziaz nahiz konkistaz lortutako printzerriak.

Printzea-ren pasarte batzuk

Norbaitek galdetuko dio bere buruari Agatoklesek, Oliverottok eta antzeko terraleko beste askok, egindako traizio eta gaiztakeriak gorabehera, zergatik lortu zuten euren aberrietan luzaro eta seguru irautea eta kanpoko etsaiei aurre egitea, krudelak eta doilorrak izateko behar izanik gabe. Agian harrituko dira jakitean euren aberrikideak ere inoiz ez zirela altxatu euren aurka; beste batzuk, ordea, metodo berberak erabilia, ez ziren gai izan euren Estatuei eusteko ez gerra sasoian ez eta bakealdian ere. Nire ustez, gaiztakeriaren eta traizioaren erabilera on edota txarrean dago gakoa. Nik neuk erabilera ona bat-batean eta behin erabilitakoari deritzot, eta hau soilik norbere ziurtasunari bideratutakoa bada, geroko jarraipenik gabea, eta ahal delarik, gobernatutakoen erabilgarritasun handienera bideratuta.

Erabilera txarreko gaiztakeriazko ekintzak dira, hasieran inongo garrantzirik izan ez arren, egunik egun handituz doazen horiek; beti ere, desagertu beharrean eta erabiltzeko arrazoia eta helburuari estu lotu ordez.

Lehenengo erabilerari jarraitzen diotenek espero izan dezakete bai Jainkoak bai gizakiek barkatzea, Agatoklesi gertatu bezala; besteei dagokienez, ezinezkoa dute bere horretan irautea.

Ezinbestekoa da, beraz, Estatu bat konkistatzen duena saia dadin gaiztakeria guztiak behingoa eta denak batera burutzea, behin eta berriro burutzera derrigortuta bere burua ikus ez dezan, eta honela menpekoak lasaitu eta eurekin bakea egin era guztietako onurak banatuz euren artean.

Beste era batera jokatzeko duena, dela lotsagatik, dela oker aholkatu dutelako, aldioro ezpata eskuan egotera behartuta dago, eta ezin izango da menpekoek fidatu, zeren hauek ere, gaiztakerietara eta zigorretara ohituta, ezin izango baitira inola ere berataz fidatu. Zigor guztiak aldi berean eginez gero min txikiagoa sortzen dute, burutan laburrago irauten baitute. Mesede eta sariak, berriz, astiro eta aldian-aldian egin beharrekoak dira, luzarago iraun dezaten oroimenean.

IX Atala Printzerri zibilei buruzkoa:

Hiritar bat hilketa izugarriak eta bortizkeriarik erabili barik printzea izatera irits daiteke. Nahikoa du bere auzokideek herria gobernatzeko hautatzea eta haren alde jokatzeko eta horretan laguntzea. Printzerri honen izena printzerri zibila da.

Lortzeko ez da beharrezkoa ez ondasunik ez kemen berezirik, ezpadaze maltzurkeria zorrotza. Baina inork ere ez du lortzen gailentasun hau herria bera edo handikiak alde izan gabe.

Herri guztietan egon ohi dira joera nagusi bi: bata herriak ez duela nahi boteretsuek menpera dezaten, eta bestea handikiek herria menperatu eta zanpatu nahi dutela. Joera bi hauek talkatik hiru ondoriootako bat sortzen da: printzerriaren ezarketa, edo errepublikarena edota alberdania eta anarkiarena.

Printzerriaren ezarketaren aldekoak bai herria eta bai handikiak dira, bata edo besteak dituen aukeren arabera. Handikiek ikusten badute ezin diotela aurre egin herriari, orduan euren arteko baten izen ona indartzen eta sendotzen hasten dira, azkenik printze izendatzen duten arte. Horrela beronen subiranotasunaren gerizan euren apetak hobeto asetzeko. Herriak era berebean jokatu ohi du euren arteko bakar batekiko, baldin eta handikiei aurre ezin egin diezaiekeela ikusten badu, era honetan beronen autoritatea dela medio hobeto babesteko.

Handikien laguntzaren bidez printzegoa lortzen duenak nekezago eusten dio botereari, herriaren laguntzaz lortzen duenak baino, zeren lehenak sarri ikusten du bere burua arriskuan bere maila berekoak direla uste duten handiki askoren eskutik, eta gainera, ezin ditu bere nahierara maneiatu azken hauek.

Baina herriaren laguntzaren bitartez printzegoa lortzen duenak boterean bakar-bakarrik ikusiko du bere burua, eta nekez aurkituko du inguruan esana estu-estu beteko ez duenik.

Gainera zaila da handikien apetak betetzea besteak gutxietsi gabe; herriaren nahiek, haatik, ez dute inor gutxiesten, herriaren nahiek handikienek baino askoz ere helburu zintzoagoa baitute, handikiek herria zanpatu nahi dute eta herriaren desio bakarra inork ez zanpatzea baita.

Aurretik esandakoari zera erantsi behar zaio, hots, printzea herriaren etsaia bada, printzea inoiz ez da seguru egongo, herria osatzen dutenak asko baitira, handikiak gutxi batzuk diren bitartean; azken hauek, beraz, errazago kontrola daitezke.

Printze batek gorroto dion herriarekiko izan lezakeen beldurrik handiena albora botea izatea da, hau da, herriak berak bertan behera uztea da. Baina aurka dituenak handikiak badira bertan behera uzteaz gain, eraso egin edota suntsitu dezaten arriskua ere badu. Handikiak herria baino maltzurrago eta zuhurragoak izanik, gogor ekiten diote ataka horretatik irteteko eta printzearen ordezko izango denarengandik karguak eskatzen dituzte.

